

URUMEAKO Kronika

2017/01/17



PDF

HERNANI Urtarrilak 17



Aranzadi zientzia elkarteko kideek hartu zuten, sagardo berriaren aurreneko tragoxka.

[albisteak](#)//TXOTX IREKIERA

Zientzia eta kultura elkartuta... txotx!

Martxan da atzotik, sagardotegi denboraldi berria. Aurreneko kupela ireki, eta Aranzadi zientzia elkarteko kideek hartu zuten aurreneko tragoxka. Herritarren txanda izan zen gero!

HERNANI

2017/01/15 00:00 Igandea

Euriak aterki eta xirak busti zituen bezala, busti zituen herritarren zintzurak, sagardo berriak. Eguraldi aldrebesari aurre eginez elkartu ziren Plazan, herri kirolen, trikitilarien eta kalez kaleko kantuen ondoren, sagardo berriari ongietorria egiteko.

Aranzadi zientzia elkartea izan zen atzoko omendua eta protagonista, eta atzotik hasita datozen

hilabeteetan, inork gutxi izango du sagardoak adinako protagonismorik.

Eta sagardoak daukan tiradizoa nabarmena izan zen atzo ere, Aranzadiko kideen aurreneko tragoxkei jarraituz, herritar askok nahi izan baitzuten dastatu, hain «usain, kolore eta gorputz onekoa» atera den sagardoa. Baso bana hartuta, denek egin zuten txotx!

Paco Etxeberria

«Asko eskertzen dugu, bihotzez egin diguzuen omenaldi hau»

Aranzadi, Hernanin «oso maitatua» sentitzen dela nabarmendu zuen Paco Etxeberriak.

Aranzadi zientzia elkarte eta sagardoa izan ziren, atzo, eguneko protagonista nagusiak. Sagardo berriari ongietorria egin aurretik, omenaldia jaso zuen Aranzadik Plazako taula gainean. Elkartearen eta Paco Etxeberriaren ibilbideari errepasoa egin zion Jon odriozola aurkezleak, eta haien jarduna goraipatu zuen Luis Intxauspe alkateak.

Ondoren, Aitor Ruiz de Eginok egindako eskultura bat eskaini zieten, eta aurrekuaren ondoren, Etxeberriak hartu zuen hitza: «sorpresa haundia eta pozgarria izan da guretzat, sari hau jasotzea. Eta eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotzez egin diguzuen omenaldi honengatik. Izan ere, askotan esan digute, Aranzadik daukala buru gutxi eta bihotz asko».

Etxeberriak nabarmendu zuen, elkarteko kide asko direla hernaniarrak, eta hori «oso garrantzitsua» dela: «oso maitatuta sentitzen gara herri honetan».

Eta azkenik, aipatu zuen «uste baino lotura gehiago» daukatela Aranzadik eta sagardoak: «zientzia eta kultura sortzen dugu gizakiok, horrek bereizten gaitu. Eta sagardoa zerbait kulturala da».

ARGAZKIAK



 Atsegin dut  0

[Txiokatu](#)

Izena*

Eposta helbidea*

Iruzkina*

Captcha*



reCAPTCHA erronka ikusteko, eskuratu [onartutako arakatzaille](#) bat.

Bestela, orri hau ikusi beharko ez zenukeela uste baduzu, egiaztatu Internetera konektatuta zaudela eta kargatu berriro.

[Zergatik egin behar dut hau?](#)

Bidali

Aurreikusi

Maridomingion Urt. 15, 2017, 11:20 a.m.**reply**

Hau da zuentzat kultura, txotx oloak.



GEHIGARRI BEREZIA



HERNANI

Urtarrilak 17

Agenda Bateratua

//Erabiltzaileak

Puri-Purian

Bi urteko haurrak ... (1)

Zientzia eta kultura ... (1)

Etxebizitza duina? (1)

Jan-edan eta musikaz ... (1)

Salba dezagun Iruña-Veleia (1)

«Elkartearen helburua da ... (10)

Magia eta ilusioa, ... (2)

Arte plastikoak sustatzeko, ... (1)

Artista plastikoei, laguntza ... (1)

Egitarau bateratua, oporrak ... (2)

Gida komertziala

[Bilatu](#)

Iragarki merkeak

*ETXEKO KONPONKETAK egiten dira;
iturgintza, elektrizitatea, pintura,
berogailuak, persianak... Seriotasuna.*

Telefonoa: 616886660

*Garaje itxia alokatzen da, Latxunbe
Berrin: 14m2.*

Telefonoa: 605724926

[+ Ikusi](#)

[Tweets por @KronikaNet](#)

Gaur



6°

1°

Bihar



2°

-1°

Etzi



4°

-3°

[Aemet](#) eskainitako datuak

Azken argazkiak



Ura atera da Urumea ba...



Astigarragako Txotx Ir...



Wukroren aldeko IV. Sa...



Gabonak 2016




Oroimena berreskuratuz



Txantxillako Festak 2016


Azken bideoak



Hernaniko Gazte Olinpiadak 2016



Mahai ingurua, alkategaiekin



Korrika 19 - Hernani / Astigarraga



Korrika Txikia 2015



Uholdeak Urumea bazterretan



Hernanik 1000 urte

ARGITARATZAILEA



ZEIN GARA

URUMEAKO
kronika

KONTAKTUA

Larramendi kalea 11 - Hernani 20120

Telefonoa: 943 33 08 99 / 688 660 714

E-maila: kronika@kronika.eus

astigarraga@kronika.eus

urumea@kronika.eus



LAGUNTZAILEAK



**DOBERA
KRONIKA
BAZKIDEAK**

Legezko oharra